

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

Iragarkia

Debako Udaltzaingoaren Antolamendua eta Funtzionamendua arautzen duen erregelamenduaren testua, 2018ko uztailaren 19ko Udalbatzarrean onartu zen hasierako izaeraz eta jendaurrean egon den bitartean alegazioak aurkeztu dira. Onartutako alegazioak testuari erantsi ondoren, behin-betiko onartutzat eman da 2018ko azaroaren 29ko ohiko bilkuran. Erregelamendu hau ez da indarrean sartuko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusten den epea igaro arte.

Deba, 2019ko otsailaren 4a.—Pedro Bengoetxea Loiola, alkatea. (852)

Debako Udaltzaingoaren antolamendurako eta funtzionamendurako araudia.

Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoari jarraiki, Debako Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Araudi hau xedatu da.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.

Debako Udaleko Udaltzaingoak bete behar dituen jarduera eta funtzionamendu-irizpideak finkatzea da Araudi honen xedea.

2. artikulua.

Araudi hau Debako Udaltzaingo osoari eta hura osatzen duten kide guztiei aplikagarri izango zaie.

II. KAPITULUA. KONTZEPTUA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

3. artikulua.

Debako Udaltzaingoa izaera zibileko institutu armatua da, egitura eta antolamendu hierarkizatua du, bertako Alkate-Lehendakariaren edo hark eskuordetzen duen Zinegotziaren goi-agintaritzaren mende dago, eta bertako kideak Debako udalerriko lurralde-eremuan arituko dira, larrialdi-egoeretan izan ezik, horretarako eskumena duten Agintaritzek aldeztu aurretik hala eskatu eta baimenduz gero.

Bertako kideak funtzionario publikoak izango dira, eta beren zereginak betetzean, agintaritzaren agente-izaera izango dute lege-ondorio guztietarako.

4. artikulua.

Euskadiko Poliziaren Antolamendurako uztailaren 17ko 4/92 Legeak eta aipatutako Lege Autonomiko hori garatzeko

AYUNTAMIENTO DE DEBA

Anuncio

Habiéndose presentado alegaciones dentro del plazo de exposición pública al texto del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Deba, aprobado inicialmente en Pleno del 19 de julio de 2018, y habiéndose añadido dichas alegaciones al texto, se considera definitivamente aprobado el mismo en el Pleno ordinario de 29 de noviembre de 2018. El presente reglamento no entrará en vigor hasta que haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Deba, a 4 de febrero de 2019.—El alcalde, Pedro Bengoetxea Loiola. (852)

Reglamento de organización y funcionamiento de la Policía Local de Deba.

En desarrollo de lo previsto en la Disposición Transitoria Primera del Decreto 58/2015, por el que se establecen las normas marco aplicables a la organización y funcionamiento de los Cuerpos de Policía Local de Euskadi, se dicta el presente Reglamento de Organización y Funcionamiento del Cuerpo de la Policía Local de Deba.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. OBJETO y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1.

El presente Reglamento tiene por objeto establecer los criterios de actuación y funcionamiento por los que se regirá el cuerpo de la Policía Local del Ayuntamiento de Deba.

Artículo 2.

El presente Reglamento será de aplicación al Cuerpo de Policía Local Deba y a todos y a cada uno de sus integrantes.

CAPÍTULO II. CONCEPTO Y RÉGIMEN JURÍDICO

Artículo 3.

La Policía Local de Deba es un instituto armado de naturaleza civil, con estructura y organización jerarquizada bajo la superior autoridad de la Alcaldía-Presidencia o Concejalía en quien delegue, cuyos componentes actuarán en el ámbito territorial del municipio de Deba salvo en situaciones de emergencia y previo requerimiento y autorización de las Autoridades competentes.

Sus integrantes tendrán la condición de personal funcionario público y en el ejercicio de sus funciones y a todos los efectos legales, el carácter de agentes de la autoridad.

Artículo 4.

La Policía Local de Deba se regirá por lo dispuesto en la Ley 4/92 de 17 de julio, de ordenación de la Policía del País Vasco,

ematen diren gainerako xedapenek, baita Debako Udalak aipatu araudi-esparrura egokiturik onartzen dituen gainerako arau eta ordenantzek ere arautuko dute Debako Udaltzaingoa.

Udaltzaingoa Udaleko Alkate-Lehendakariaren ardurapean egongo da, eta hark bere eskumeneko eginkizun guztiak edo batzuk eskuordetu ahal izango dizkio beste zinegotzi edo funtzionario jakin bati.

Araudi honen ondorioei begira, Udaleko Agintaritzat hartuko da Alkate-Lehendakaria, edo, hala egokitzen denean, eskuordetze bati jarraiki alkatearen eskumenak betetzen dituen zinegotzi edo funtzionarioa.

III. KAPITULUA. EGINKIZUNAK

5. artikulua.

Debako Udaltzaingoa ondorengo eginkizunak beteko ditu:

a) Norbanakoen eskubideak libreki gauzatu daitezela babestuko dituzte, askatasun publikoak bermatuz eta herritarren segurtasuna zainduz, eta horri begira, Polizia Judizial den alde-tik Prozedura Kriminalaren indarreko Legeak esleitzen dizkieten berezko eskumenak gauzatuko dituzte.

b) Udal ordenantzak eta araudiak (gida gisa 1. eranskinean jasoak), Alkate-Lehendakariaren bandoak eta Udalaren erabakiak, baita udaltzaingoari eta gobernu onari buruzko gainerako xedapen orokorrak ere –horiek betetzea Udalaren eskumena denean– zainduko dituzte, betearazi eta salatuko dituzte, eta egiten diren lege-urratzeak Alkate-Lehendakariari jakinaraziko dizkiote.

c) Ingurumena eta ingurua babestearekin loturik indarrean dagoen araudia bete dadila zainduko dute bereziki, betiere alor horietan udalak dituen eskumenen esparruan.

d) Udaleko agintariak babestu eta eraikinak, parkeak, lorategiak eta portura sarbidea, kaiaren erabilera egokia muntauta dagoenean eta, oro har, udalaren titulartasunpeko instalazio edo ondasun guztiak zainduko dituzte, ondasun horiek zaintzeko ardura beste langile funtzionario batzuen esku egon arren.

e) Udal Batzarretan lagunduko dute.

f) Osasun eta higiene publikoak zainduko dituzte.

g) Istripu, hondamendi edo ezbehar publikoetan laguntza eskainiko dute, eta hala egokituz gero, babes zibilaren planak gauzatzen parte hartuko dute eta gizarte-laguntzaren eta babes zibilaren ardura duten Institutuzio eta Erakundeekin elkarlanean jardungo dute.

h) Delitu-ekintzak egin daitezela eragozteko helburua duten prebentzio-lanak eta bestelako jarduera guztiak egingo dituzte.

i) Autonomia Estatutuko 17.4 artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, Segurtasun Batzordearekin elkarlanean arituko dira, baldin eta lankidetzara horretarako lege-estaldurarik badago.

j) Bide publikoetan, parkeetan eta lorategietan, eta udal on-darea osatzen duten gainerako leku eta ondasun tokietan egindako kalte eta anomaliei buruz txostenak egin eta horiek zainduko dituzte, eta dagokion departamentuari igorriko dizkiote.

k) Udalaren antolamendu eta diziplinaren mende dauden legez kanpoko obrak eta jarduerak salatuko dituzte.

l) Eremu publikoak zaindu eta jendetza handiko manifestazioetan babes-lanak egiten eta ordena mantentzen lagunduko dute, hori egiteko eskatzen zaienean.

m) Gatazka pribatuak konpontzen lagunduko dute, hori egiteko eskatzen zaienean.

así como por las demás disposiciones que se dicten en desarrollo de la citada Ley Autonómica y demás normas y ordenanzas que, ajustadas al marco normativo referenciado, apruebe el Ayuntamiento de Deba.

La autoridad superior de quien dependerá la Policía Local es la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento, quien podrá delegar en otra Concejalía o en personal funcionario determinado, alcanzando dicha delegación a todas o a algunas de las facultades que ostenta.

A efectos del presente Reglamento, se entenderá por Autoridad Municipal a la Alcaldía-Presidencia o, en su caso, la Concejalía o personal funcionario que, por delegación, ejerce las facultades propias de aquella.

CAPÍTULO III. FUNCIONES

Artículo 5.

La Policía Local de Deba ejercerá las siguientes funciones:

a) Proteger el libre ejercicio de los derechos individuales, garantizando las libertades públicas, y velando por la seguridad ciudadana, ejercitando para tal fin las competencias propias que, por su carácter de Policía Judicial, le atribuye la vigente Ley de Enjuiciamiento Criminal.

b) Vigilar, exigir y denunciar el exacto cumplimiento de las ordenanzas y reglamentos municipales (recogidos a título orientativo en el anexo 1), bandos de la Alcaldía-Presidencia, y acuerdos del Ayuntamiento, así como de las demás disposiciones generales relativas a policía y buen gobierno cuya ejecución sea competencia del Ayuntamiento, dando cuenta a la Alcaldía-Presidencia de las infracciones que se produzcan.

c) Velarán específicamente por el cumplimiento de la normativa vigente en materia de medio ambiente y protección del entorno en el ámbito de las competencias locales en dichas materias.

d) Protección de las autoridades del municipio y la vigilancia de los edificios, de los parques, de los jardines, del acceso al puerto, del correcto uso del pantalan cuando esté montado y, en general, de todas las instalaciones o bienes de titularidad pública aunque otro personal funcionario se halle adscrito a la custodia de dichos bienes.

e) Asistencia en los Plenos del Ayuntamiento.

f) Vigilar la salubridad e higiene públicas.

g) Prestar auxilio en los casos de accidente, catástrofe o calamidad pública, participando, en su caso, en la ejecución de los planes de protección civil y colaborar con las Instituciones y Organismos encargados de la asistencia social y protección civil.

h) Efectuar diligencias de prevención y cuantas actuaciones tiendan a evitar la comisión de actos delictivos.

i) Colaborar, a los efectos previstos en el art. 17.4 del Estatuto de Autonomía, con la Junta de Seguridad, en el supuesto de que exista cobertura legal para dicha colaboración.

j) Vigilar y realizar informes, transmitiéndoselos al departamento correspondiente, sobre daños y anomalías en las vías públicas, parques y jardines y todos los lugares y bienes que constituyen el patrimonio municipal.

k) Denunciar las obras y actividades ilícitas sometidas a la ordenación y disciplina del Ayuntamiento.

l) Vigilar los espacios públicos y colaborar en la protección de las manifestaciones y el mantenimiento del orden en grandes concentraciones humanas, cuando sean requeridos para ello.

m) Cooperar en la resolución de los conflictos privados cuando sean requeridos para ello.

n) Herriguneen barruan trafikoa eta garraioak antolatuko dituzte, seinaleak emango dituzte eta zuzenduko dute, eta bereziki:

– Udalerrian ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorriak bideratu eta bide-heziketan parte hartuko dute, hori egitea eskatzen dieten erakunde eta zentroi beharrezko laguntza eskainiz; aparkaleku publikoak eta bidegurutzak zainduko dituzte, eta herri barruko bideetan trafikoari segurtasuna eta arintasuna emateko xedea duten gainerako lanak egingo dituzte, Udalak nahiz gora-goko beste agintaritzak batek ematen dituzten agindu egokiak betearaziz.

– Herrigune barruan gertatutako zirkulazio-istripuetan argiketak egingo dituzte.

– Herriguneen barruan nahiz herri-bideetan, bidaiarien nahiz salgaien garraio publikoari eta zerbitzu publikoko ibilgailuei buruz indarrean dauden xedapenak bete daitezela zainduko dute, batez ere arriskutsutzat jotzen direnena, eta horien segurtasunarekin eta higieinarekin loturiko araudia bete dadila begiratu dute.

– Trafikoaren plangintza, seinaleez eta antolamenduaz arduratzen diren Udal Erakundeekin elkarlanean arituko dira eta lan horietan parte hartuko dute.

o) Bizilagunen segurtasunari arreta eskainiko diete, pertsonak eta ondasunak zainduz, eta Udalbatza osatzen duten ki-deak pertsonalki babesteari arreta berezia eskainiz.

p) Polizia Judizial gisa dagozkien jardueretatik ondorioztatzen diren izapideak egingo dituzte, eta Agintaritzak Judizialak pertsonen eta ondasunen buruz eskatzen dizkien informazioak jasoko dituzte, egoki diren argiketak eginez. Lan horiek beren bulegoetan egingo dituzte, zuzenean Agintaritzak Judizial esku-dunari izapidetuko dizkiote, eta horri begira, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, egindakoa Agintaritzak horien esku jarri ahal izan arte.

q) Eskatzen dieten interes orokorreko informazioa herritarrei helaraziko diete, hala nola zerbitzu publikoen helbideak eta telefonoak, Batzorde Informatiboen ordutegiak eta Alkatezta-Lehendakaritzara bisita egitekoak, bizilagunen kexa eta iradokizunak jaso eta antzeko beste batzuk, eta horrez gain, laguntza eta arreta berezia eskainiko diete ezintasun fisiko edo mental bat dutelako horren premia duten pertsonen.

r) Udaleko Administrazio Arloaren funtzionamendu ego-kian lagunduko dute, agintzen dizkieten ikuskaritzak eta jakinarazpenak eginez, eta udal zergak ordainarazteko xedez udal erroldak prestatzen lagunduko dute, udaleko gainerako langileen lanalditik kanpo egin behar direlako eskatzen dizkieten lan horiek beren esku uzten dituztenean, betiere horrelakoak buruzteko ezagutza tekniko berezirik behar ez badute eta zerbitzuari berari inolako kalterik egiten ez badiete.

s) Argiteria publikoa zainduko dute eta «puntu beltz» jo izan direnen salaketak egingo dituzte, pertsonen segurtasuna bermatzearen.

t) Herriko jaietan barrakak antolatu, arautu eta horien kobrantzak egingo dituzte.

u) Azokako instalazioak kontrolatu eta dagozkien tasak kobratuko dituzte.

v) Bide publikoak zaindu eta baimenik gabe okupatzen dituztenean salaketak egingo dituzte.

w) TAO antolatu, arautu eta diru-bilketak egingo dituzte.

x) Galdutako objektuak gorde eta zaindu egingo dituzte.

y) Laguntza eman, gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpora, etxerik gabeko pertsonen, eskuragarri dauden udal baliabideak erabiliz.

z) Ertzainarekin batera, udal hauteskundearen ohiko funtzionamenduan lagundu.

n) Ordenar, señalizar y dirigir el tráfico y transportes, en los cascos urbanos, y en concreto:

– El encauzamiento de la circulación rodada y peatonal en el término municipal, la participación en la educación vial, pres-tando la colaboración precisa a los órganos y centros que la so-lliciten; la vigilancia de los estacionamientos públicos e intersec-ciones viales, y los demás cometidos que tiendan a dar seguri-dad y fluidez al tráfico dentro de las vías urbanas, aplicando tanto las disposiciones dictadas por el Ayuntamiento como las de rango superior que sean pertinentes.

– Instruir atestados por accidentes de circulación dentro del casco urbano.

– Colaborar en la vigilancia del cumplimiento de las disposi-ciones vigentes sobre los medios de transporte y vehículos de servicio público en el ámbito de los cascos urbanos y de las vías municipales, tanto de personas viajeras como de mercancías, en especial de las calificadas como peligrosas, cuidando de la observancia de la normativa relativa a la seguridad e higiene de los mismos.

– Colaborar y participar en los Organismos Municipales que entiendan de la planificación, señalización, ordenación del trá-fico y movilidad.

o) Prestar atención a la seguridad de la vecindad, velando por sus personas y bienes, con especial atención a la protección personal de los integrantes de la Corporación Municipal.

p) Practicar las diligencias derivadas de sus actuaciones en calidad de Policía Judicial, realizando las informaciones sobre personas y bienes que sean requeridas por la Autoridad judicial, y levantando lo atestados oportunos. Estas tareas se harán en dependencias propias, tramitándose directamente a la Autoridad Judicial competente, debiéndose adoptar las medi-das necesarias hasta la puesta de lo actuado a disposición de dichas Autoridades.

q) Facilitar a la ciudadanía la información de interés gene-ral que se les requiera, tales como direcciones y teléfonos de los servicios públicos, horarios de las Comisiones Informativas y de visitas a la Alcaldía-Presidencia, recoger quejas y sugerencias de los vecinos y otros de similar índole, así como prestar espe-cial atención y ayuda a aquellas personas que, por padecer al-guna discapacidad física o mental, la requiera.

r) Contribuir al buen funcionamiento del Área Administra-tiva del Ayuntamiento, realizando las notificaciones e inspec-ciones que se les ordenen, y prestando su colaboración en la ela-boración de los padrones municipales que, para la exacción de los tributos locales, les sea encomendada atendiendo los asun-tos que, por plantearse fuera de la jornada de trabajo del resto del personal municipal, se les planteen, siempre y cuando no se requieran especiales conocimientos técnicos para su resolución y que no causen deterioro al servicio propio.

s) Vigilancia del alumbrado público y denuncia de los «lla-mados puntos negros» para la seguridad de las personas.

t) Ordenación, regulación y cobro de las barracas en las fiestas patronales.

u) Control de las instalaciones del mercado y cobro de las correspondientes tasas.

v) Vigilar y denunciar la ocupación no autorizada de las vías públicas.

w) Ordenación, regulación y recaudación de la OTA.

x) Guarda y custodia de los objetos perdidos.

y) Prestar asistencia, fuera de los horarios de servicios so-ciales, a personas sin hogar, utilizando para ello los medios mu-nicipales disponibles.

z) Colaborar en el normal funcionamiento de las eleccio-nes municipales junto con la Ertzaintza.

6. artikulua.

Indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusitako kasuetatik kanpo, Debako Udaltzaingoarean zerbitzuak eskatu nahi badira, Alkatetza-Lehendakariaren bitartez edo Udaltzaingoarean Ordezkararen bitartez eskatu beharko du dagokion Agintaritzak edo Erakundeak, eta kasu bakoitzean komeni dena xedatuko du Alkate-Lehendakariak. Horrekin loturik, aipatutako polizia-funtzionario horiek beti beren arduradun naturalen agindupean jardungo dutela hartuko da kontuan, Polizia Judizialaren eginkizunei dagokienez Epailleek, Fiskalek eta Auzitegiek dituzten esku-menek kontra joan gabe.

IV. KAPITULUA. KODE DEONTOLOGIKOA. OINARRIZKO JARDUERA-PRINTZIOIAK

7. artikulua.

Debako Udaltzaingoko kideen oinarrizko jarduera-printzioiak ondorengo hauek dira:

1. Ordenamendu juridikora egokituko dira, eta bereziki:

a) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta gainerako ordenamendu juridikoa erabat errespetatuz burutuko dituzte beren eginkizunak.

b) Beren eginkizunak betetzen dituztenean, erabateko neutraltasun politikoarekin eta inpartzialtasunarekin jardungo dute eta, horrenbestez, arraza, erlijio, sexu, iritzi edo beste edozein ezaugarri edo xehetasun pertsonal edo sozialengatik inolako bereizkeriarik egin gabe.

c) Zuzentasunez eta duintasunez jardungo dute. Bereziki, edozein ustelkeria-ekintzari uko egin beharko diote eta horrelakoen aurkako jarrera argi eta garbia agertu.

d) Beren jarduera profesionalean, hierarkia- eta mendekotasun-printzioiak errespetatuko dituzte. Nahitaezko mendetasun horrek inola ere ezingo du babestu nabarmenki delitu diren edo Konstituzioaren edo Legean aurkako diren ekintzak burutzea eragin dezakeen agindurik.

e) Justizia Administrazioarekin elkarlanean jardungo dute eta Legean ezarritako baldintzetan lagundu behar diote.

2. Harremanak komunitatearekin, eta bereziki:

a) Beren jarduera profesionala burutzen dutenean, indarkeria fisiko edo morala eragiten duen neurritz kanpoko edozein jarduera arbitrario edo diskriminatzaile eragotziko dute.

b) Uneoro herritarrekin dituzten harremanetan tratuzena eta adeitsua erakutsiko dute, eta horiei babesa eta laguntza ematen ahaleginduko dira, baldin eta egoerak hori egitea gomendatzen badu edo hori egitea eskatzen badiete. Beren jarduera guztietan ahalik eta informaziorik zabalena eskainiko dute jarduera horien zergatien eta helburuen buruz, ahalik eta lankidetzarik handiena erdiestearren.

c) Beren eginkizunak burutzean, beharrezko erabakitazunez eta berandutu gabe jardun behar dute, baldin eta horren ondorioz kalte larri, berehalako eta konponezin bat eragin badezakete, eta hori egitean, eskura dituzten baliabideak erabiliz eta zuzentasun, egokitasun eta proportzionaltasunaren printzipoen arabera egin beharko dute beti.

d) Beren edo hirugarrenen pertsonen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrisku larria dagoenean bakarrik erabili beharko dituzte armak, edo bestela, herritarren segurtasunerako arrisku larria eragin dezaketenean, eta aurreko apartatuak aipatzen dituen printzipoekin bat etorritik.

3. Atxilotuen tratamendua, eta bereziki:

a) Debako Udaltzaingoko kideek beren izaera behar bezala identifikatu beharko dute atxiloteta bat egiten dutenean.

Artículo 6.

Fuera de los casos previstos en el ordenamiento jurídico vigente, la demanda de servicios de la Policía Local de Deba se efectuará por la Autoridad o Institución solicitante, a través de la Alcaldía-Presidencia o Delegado/a del Cuerpo, quien dispondrá lo conveniente en cada caso. A este respecto, se tendrá presente que la actividad de dichos funcionarios policiales, se efectuará siempre bajo las órdenes de sus mandos naturales, sin perjuicio de las competencias de los Jueces, Fiscales y Tribunales en lo que afecta a sus funciones de Policía Judicial.

CAPÍTULO IV. CÓDIGO DEONTOLÓGICO. PRINCIPIOS BÁSICOS DE ACTUACIÓN

Artículo 7.

Son principios básicos de actuación de los integrantes de la Policía Local de Deba, los siguientes:

1. Adecuación al ordenamiento jurídico, y especialmente:

a) Ejercer su función con absoluto respeto a la Constitución, Estatuto de Autonomía y al resto del ordenamiento jurídico.

b) Actuar en el cumplimiento de sus funciones, con absoluta neutralidad política e imparcialidad y en consecuencia, sin discriminación alguna por razón de raza, religión, sexo, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

c) Actuar con integridad y dignidad. En particular, deberán abstenerse de todo acto de corrupción y oponerse a él resueltamente.

d) Sujetarse en su actuación profesional, a los principios de jerarquía y subordinación. En ningún caso, la obediencia debida podrá amparar órdenes que entrañen la ejecución de actos que manifiestamente constituyan delito o sean contrarios a la Constitución o a las Leyes.

e) Colaborar con la Administración de Justicia y auxiliarla en los términos establecidos en la Ley.

2. Relaciones con la comunidad, singularmente:

a) Impedir, en el ejercicio de su actuación profesional, cualquier práctica abusiva, arbitraria o discriminatoria que entrañe violencia física o moral.

b) Observar en todo momento un trato correcto y esmerado en sus relaciones con la ciudadanía, a quien procurará auxiliar y proteger, siempre que las circunstancias lo aconsejen o fueren requeridos para ello. En todas sus intervenciones, proporcionarán información tan amplia como sea posible, sobre las causas y finalidad de las mismas, al objeto de conseguir la mejor colaboración.

c) En el ejercicio de sus funciones deberán actuar con la decisión necesaria y sin demora cuando de ello dependa evitar un daño grave, inmediato e irreparable, rigiéndose al hacerlo por los principios de congruencia, oportunidad y proporcionalidad en la utilización de los medios a su alcance.

d) Solamente deberán utilizar las armas en situaciones en que exista riesgo racionalmente grave para su vida, integridad física o las de terceras personas, o en aquellas circunstancias que puedan suponer un grave riesgo para la seguridad ciudadana y de conformidad con los principios a que se refiere el apartado anterior.

3. Tratamiento de personas detenidas, y especialmente:

a) Los integrantes de la Policía Local de Deba deberán identificarse debidamente como tales en el momento de efectuar una detención.

b) Atxilotzen dituzten edo beren ardurapean egon daitezkeen pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa zainduko dute eta pertsonen ohorea eta duintasuna errespetatuko dute.

c) Pertsona bat atxilotzen dutenean, ordenamendu juridikoak eskatutako izapideak, epeak eta betebeharrak behar hainbateko arduraz betearazi eta zainduko dituzte.

4. Dedikazio profesionala.

Beren eginkizunak dedikazio osoz egin beharko dituzte, eta beti, edozein une eta tokitan, zerbitzuan egon ala ez, legea eta herritarren segurtasuna babestuz esku hartu beharko dute.

5. Sekretu profesionala.

Beren eginkizunak burutzean edo burutzeagatik ezagutzen dituzten informazio guztien inguruan sekretu zorrotza gorde beharko dute. Ez dira behartuak egongo informazio-iturriak ezagutaraztera, beren eginkizunak burutzeak edo lege-xedapenek beste era batera jokatzera behartzen dituztenean izan ezik.

6. Erantzukizuna.

Beren jarduera profesionala burutzean, lege-arauak, beren lanbidea arautzen duten legeak edota arestian aipatutako printzipioak urratuz edo hautsiz egiten dituzten ekintzen erantzule pertsonal eta zuzenak izango dira, baina nolana ere, Administrazio Publikoari ondare-erantzukizun bat egokitu dakieke ekin-tza horientzat.

II. TITULUA

EGITURA ETA ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. GAI OROKORRAK

8. artikulua.

1. Debako Udaltzaingoa Sail bakar batean bilduta geratuko da, bereganatzen duen barne-antolamendua edozein izanik ere.

Agintaritza gorenaren pean eta Alkate-Lehendakariaren edo hura eskuordetzen duen pertsonaren mendekotasun zuzenean, Udaltzaingoaren aginte gorena Kidego honen Buruzagitzaren esku geratuko da, eta horren barruan kategoria gorena duen azpiofizialak beteko du hori.

2. Kidegoaren Buruzagitza bertan ez dagoenean, edo bere postua betetzea eragozten dion egoeraren bat gertatzen denean, Alkate-Lehendakariak izendatutako udaltzainak hartuko ditu haren eginkizunak.

3. Debako Udaltzaingoa bere helburuak ongien erdiesteko moduan eta eskaintzen dituen zerbitzuen behar operatiboan arabera antolatuko da.

4. Debako Udaltzaingoa, hala behar izanez gero, Udalak ezartzen dituen departamentuetan antolatuko da, bitartekoen eraginkortasun, barne-koordinazio eta ekonomiaren printzipioei jarraiki, eta halaber, Udalak finkatuko ditu departamentu bakoitzaren eginkizun zehatzak eta orokorrak, udaltzainen kopurua eta horien buruzagitza.

II. KAPITULUA. EGITURA ETA PLANTILLA

9. artikulua.

Udalak urtero onesten duen plantilla organikoan finkatutako udaltzain kopurua izango du Debako Udaltzaingoak.

10. artikulua.

Egiturari dagokionez, uztailaren 17ko 4/92 Legearen 118.1 artikuluaekin bat etorriz Udaltzaingoaren barruan sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera adierazten diren sailkapen-multzoei dagozkien eskaletan eta kategorietan antolatuko da Debako Udaltzaingoa.

b) Velarán por la vida e integridad física de las personas a quienes detuvieren o que se encuentren bajo su custodia y respetarán el honor y la dignidad de las personas.

c) Darán cumplimiento y observarán con la debida diligencia los trámites, plazos y requisitos exigidos por el ordenamiento jurídico, cuando se proceda a la detención de una persona.

4. Dedicación profesional.

Deberán llevar a cabo sus funciones con total dedicación, debiendo intervenir siempre, en cualquier momento y lugar, se hallaren o no de servicio, en defensa de la ley y de la seguridad ciudadana.

5. Secreto profesional.

